AROA

Oiartzungo trantsizio ekosozialerako oinarrien eta erronken dekalogoa

nondik gatoz, non gaude eta nora goaz

Oiartzun | 2026ko urria

AROA

Oiartzungo trantsizio ekosozialerako oinarrien eta erronken dekalogoa

nondik gatoz, non gaude eta nora goaz

Oiartzun | 2026ko urria

Labur baina sakon

Oiartzunen trantsizio ekosozialari heldu behar diogu, klima larrialdiari eta egungo sistema ekonomikoaren eta energetikoaren mugei aurre egiteko. Horretarako, herriak baditu oinarri sendoak: natura babesteko ikuspegia eta ekintzak, uraren kudeaketa propioa, birziklapen tasa handiak, bertako nekazaritza eta abeltzaintza bultzatzeko estrategia, eta energia berriztagarrien lehen esperientziak.

Aldi berean, hainbat arazo orokor azpimarratu beharko lirateke; batzuk Oiartzunen modu larriagoan azaltzen direnak: kontsumo eredu jasanezina, autoaren erabilera handiegia, merkataritza gainazal globalizatu eta handien mendekotasuna, eta energiaren zati handiena oraindik erregai fosiletatik etortzea.

Egoera honi aurre egiteko energia berriztagarriak beharrezkoak dira, baina tokiko komunitatearen kontrolpean, modu banatuan eta orekatuan, eta naturarekiko errespetuz garatu behar dira. Horregatik, Aiako Harria inguruko Repsolen proiektu eolikoekiko (Domiko eta Erreka) mesfidantza adierazten dugu, ingurumenari eta herritarren interesei ez dietelako erantzuten.

Azkenik, tokiko energia komunitateak, bertako ekoizleak, merkataritza txikia, elikadura burujabetza eta garraio jasangarria indartzea proposatzen dugu, Oiartzunen etorkizun iraunkor eta burujabeago bat eraikitzeko.

Trantsizio ekosozialerako oinarrien dekalogoa

1 **Energia berriztagarriak** babesten ditugu, baina herritarren kontrolpean eta naturarekiko errespetuz, ez Aiako Harrian Repsolek planteatzen dituen moduan.

2 **Garraio jasangarria**: Mugikortasun ereduak kolektibora, oinezkora eta txirrindulara lerratu behar ditugu. Elektrifikazioari ere begiratu beharko diogu, konbustio indarra indar elektrikoarekin ordezkatuz pausoz pauso.

3 **Kontsumoa gutxitzea**, ez dagozkigun baliabideak ez xahutzeko helburuarekin.

4 **Tokiko ekoizleak eta ekoizpena**: Herrian dauden ekoizleak indartu behar ditugu HemenGuk bertako produktuen marka babestuz, honek aberastasuna eta ofizioaren jakintza bertan geratzea ahalbidetzen digulako.

5 **Merkataritza txikia**: Gertutasuna lehenetsi behar dugu, aberastasuna bertan gera dadin eta energiaren ikuspegitik jasangarria den eredua bultzatuz.

6 **Burujabetza**: Oinarrizkoak diren arloetan bertako baliabideak erabili behar ditugu menpekotasuna murrizteko asmoz.

7 **Zaintza**: Trantsizio ekosozialak erdigunera ekarri behar du zaintza, bai ingurumenarena bai pertsonena. Jardun ekonomikoak ezin du horren gainetik pasa.

Komunitate sendoa: Trantsizio ekosoziala ez da etorriko ariketa indibidualetatik, komunitate sendo baten elkarlanetik baizik.

8 **Aukera berdintasuna**: Ezin da inor atzean utzi. Desberdintasun sozialak eta ekonomikoak desagerrarazteko antidotoa izan behar du trantsizio ekosozialak.

9 **Erresilientzia**: Krisi bakoitzari erantzuteaz haratago, aldaketetara egokitzeko eta aurrera egiteko gaitasuna duen herria eraiki behar dugu.

10 **ERANSKINA:**
DEKALOGOA OSATZEKO JATORRIZKO DOKUMENTUA

NONDIK GATOZEN, NON GAUDEN ETA NORA GOAZEN
TRANTSIZIO EKOSOZIALAREN ERRONKAK ETA OINARRIAK OIARTZUNEN

Sarrera

Galdera ez da berriztagarriak bai ala berriztagarriak ez, askoz ere sakonagoa den erpin ugariko arazo baten aurrean gaude. Azken 100 urteetan ezagutu eta aldatzen joan den sistema kapitalistaren krisi multisistemikoari erantzuteko, nolako trantsizio ekosoziala egituratzeko gai garen definitu behar dugu. Bide horretan sakonduz, idatziak Oiartzungo herritar eta eragile ezberdinen ikuspegia eta jarrera jaso nahi ditu, hau da, larrialdi ekologikoaren aurrean eta honi aurre egiteko herri mailako trantsizio ekosozialaren oinarriak. Era berean, eta bereziki, gaur egun eskualdean aztertzen ari diren proiektu eolikoen aurrean ikusmira-posizionamendua adostu eta lanketa amankomuna egitearen beharra azpimarratzen dugu, beti ere, bakoitzak dituen ardura ezberdinetatik.

Hainbat aurrekari

Izan zitekeen bestela, baina gaude, Oiartzunek baduela oso berezkoa duen egiteko modu bat, naturaren kontserbazioari eta burujabetzari hertsiki lotua dagoena. Beste batzuk izan bazitezkeen ere, hemen hainbat adibide esanguratsu:

- Naturaren zaintza: Aiako Harria Natur Parkea, Gipuzkoako lurraldearen %3 hartzen duena, 1995ean sortu zen. Lurraldearen beste eremu batzuk ez babestea erabaki zen bezala, Oiartzunek naturaren zaintzaren bidetik jo zuen.
- Burujabetza: Añarbeko urtegiaren zati bat bere lurretan egon arren (322.000 herritar, gipuzkoarren %44a, ur edangarriz hornituz), Oiartzunek bere ur hornidura kudeatzeko erabakia hartu zuen burujabetza ariketa praktiko ausarta eginda.
- Aldaketa klimatikoa: Hondakinen kudeaketan lanketa sakona burutuz eta herritarren lankidetzaren bitartez, %80aren inguruko birziklatze mailara iritsi gara, Europan 2035erako %65era heltzea eskatzen den bitartean. Tarte horretan milaka tona zabor erretzea eta negutegi efektuko CO2-a atmosferan barreiatzea ekidin da.
- Energia burujabetza: 2019ko datuen arabera, Oiartzunen instalatutako energia elektrikoaren sorkuntza berriztagarriek (minihidraulikoa eta fotoboltaikoa), etxebizitza sektorearen argindar kontsumoaren %42a asetzeko adina energia sortu zuten; azpimarratzekoa izanik %39,3a zentral minihidraulikoetatik etorri zela (3 daude aktibo gaur egun Oiartzunen).

Aurrekari hauek burutu nahiko genukeen trantsizio ekosozialaren oinarriak izango dira.

Zenbait datu… kezkagarri

Baga. Datu orokor bat, baina adierazgarria. Eskuragarri ditugun azken datuek adierazten dute gizakion aztarna ekologikoa 1,7 dela gaur egun, hau da, gutako bakoitzak 1,7 mundu beharko ditugula daramagun bizitza kontsumistari eusteko. Euskal Herrian are okerragoa da egoera: aztarna ekologikoa 2,65 da. Beraz, oiartzuarrok, lehen mundu kontsumistako parte izanik, ardura haundiagoa daukagu horretan. Ez da posible, ezin dezakegu gurea ez dena xahutzen jarraitu eta ez ikusiarena egin, arduraz aurre egin behar zaio egoerari. Ikasle txarra izatetik ona izatera pasa beharra daukagu, eta nota hobetzeko bidean sakondu.

Biga. Kotxearen zentralitatearen eta eredu honen ondorioen gainean hausnartu behar dugu. Oiartzuarrok 0,62 turismo (kotxe)/biztanleko darabilzkigu; Gipuzkoako datua 0,45 da. Oiartzungo azken klima eta energia planetan argiki azpimarratzen zen berotegi efektuko gasen isurien iturri nagusia garraioa zela. Beraz, erlazio zuzena dago mugikortasun ereduaren eta energia fosilen erabileraren artean.

Higa. Merkataritza eredua eta gertutasuna landu behar dira. Bi merkataritza-gune handi, hainbat supermerkatu eta kate multinazionalei lotutako dendak ditugu herrian. Eredu honetan, dena dago salneurriari, etekinari eta logistika/hornikuntza sare globalei begira; bertako ekoizleak ezdeusa dira. Energiaren ikuspegitik, zulo beltzak dira horrelako ereduak, bai logistika kateetan xahutzen den energia fosilari dagokionean bai eraikuntza horien energia eskaerari dagokionean, baita horretarako behar diren sorkuntza planta haundiei dagokionean ere. Esan gabe doa, burujabetza ikuspuntu batetik, kate globalen sareetan harrapaturik gaudela.

Laga. Sistema energetikoaren ezintasunak ikusi behar ditugu. Kontsumitzen den energia guztiaren %22a bakarrik da elektrikoa, eta datu hau egonkor mantendu da azken urteetan. Estatu espainiarreko sorkuntza ahalmen fotoboltaikoak eta eolikoak gai dira behar hori asetzeko. Aldiz, Euskal Herrian, ez dago behar hori asetzeko nahikoa sorkuntzarik. Gainera, kontsumo energetikoaren beste zatia (hau da, %78a) fosilen menpekoa izanik, CO2 isurien sortzaile gara. Menpekotasunaren zein teknologiaren ikuspegitik eta baliabideen aldetik, bere osotasunean beste teknologia batengatik ordezkatzeko zailtasun-ezintasunak izango dituela aurreikusten da.

Adibide hauek trantsizio ekosoziala are beharrezkoago egiten dute.

Geratu eta pauso gehiago emateko unea

Arestian aipatu moduan, zenbait arlotan ondo jardun dugu, baina beste batzuetan geure buruaz eta ohiturez birpentsatzeko unea da. Baditugu herrian horretan lagundu gaitzaketen lanabesak, hala nola, energia berriztagarri kolektiboak egiteko prest dagoen komunitate energetikoa, bertako produktuak ekoizten dituzten ekoizle oiartzuarrak, mugikortasun ohiturak aldatzeko aukera errealak… Horiek horrela, murrizte ariketa bat proposatzen dugu eta hori gure jarduna bertakotzetik etortzea dakusagu. Ahalik eta arlo gehienetan kontsumitzekoa ahalik eta gertuen sortuz,

munduan gure inpaktua murriztea (aldaketa klimatikoan zein beste adierazle ekologikoetan) lortu nahi eta behar dugu.

Horratx gure proposamena, kontuan izanda honek ohitura aldaketa bat ekarriko duela.

Letorkigukeena… eta nahiko ez genukeena

Aiako Harriko Natur Parkean eta inguruan bi proiektu eoliko (Domiko eta Erreka) jartzeko aukera proposatzen du Repsolek, planifikaziorik gabeko energia berriztagarrien hedapenerako aukera baliatuz. Gaia serioegia da aurrerapausoak edozein modutan emateko, nahiz eta helburua, berotegi efektuko gasen murrizketa, zilegia izan. Dena den, Repsolek publikatutako informazioan arakatzen badugu, ondorengoa aurkituko dugu bere web orrian, aurreko helburuak zalantzan jarriz:

> *"Con todos estos proyectos, la previsión es alcanzar una producción neta de entre 580.000 y 600.000 bepd (barriles equivalentes de petróleo al día) en 2028, entre un 6% y un 10% más que en 2025"*

Azkenean, energia fosilen esplotazioari esker, Repsolek mundu guztian sekulako mozkinak lortu izan ditu. Momentuan momentuko bere interesen arabera energia berriztagarrietan edo fosiletan gehiago ala gutxiago inbertituko du, beti ere, bere jabeen mozkin helburuen arabera. Esan dezagun ezin dugula natur parkea bezalako altxor bat momentuan momentuko mozkin bilatzaile baten onurarako aberaste jostailu bihurtzea onartu.

Adibide moduan, gobernuz kanpoko Intermon Oxfam elkartearen web orritik ateratako informazioak oso modu adierazgarrian erakusten du entrepresa multinazional honen jarrera.

> *"...No logramos nada de beneficio con Repsol. Ellos estuvieron aquí, hubo mucha gente, ¿no ves que el campamento estuvo en la orilla del río y en mi comunidad? Se trabajaron como 6 líneas, dañaron el bosque, cortaron plantas medicinales y no nos han compensado. Siempre nos decían que lo veríamos en otra reunión y nada, se terminó la sísmica, se fueron y nunca nos dieron nada…"* Declaraciones del jefe de la comunidad indígena de Cumarillo. Perú.

Beraz, badirudi proiektuak ez direla gertuko komunitatearen onurarako izango.

Aproposa dena eta nahi duguna

Badaude beste hainbat sektore, baina hemen trantsizio ekosozialarekin hertsiki erlazionatuta daudenak aipatuko ditugu, batez ere bere jardunaren nolakotasunak energia kontsumoan eragin haundia izan dezakeelako.

Energia berriztagarrietan sinesten dugu, baina beste modu batean egin nahiko genuke eta ari gara bidea egiten. Badugu energia komunitate bat herrian, baditugu teilatu hutsak, baita gure errekek ematen diguten energia hidroelektrikorako aukera ere. Energia termikorako erabili genitzakeen basoak ere baditugu. Bide hau naturarekin orekan egin nahi dugu, eta modu herritar eta parte-hartzailean, gure herriaren aukerak ertzetaraino eramanez. Energia modu banatu eta orekatuan sortzeko aukera lehenesten dugu, ahalik eta jabetza herritarrena eta publikoena izateko bokazioarekin, burujabetza ariketa bat izanik. Gehitu, bitarteko hauen jabetza izateak pobrezia energetikoaren arazoari keinu bat baino gehiago egiteko aukera ematen digula. Oarsoaldean, izan genuen 45 urtez Iberdrolaren zentral termiko kutsakor bat (CO_2a, sufrea, nitrogeno oxidoa eta zarata). Hura atzean utzirik, berriztagarriek ordezkatu dituzte mota horretako zentral kutsakorrak, baina energia trantsizioa egiteko orduan ezin dugu utzi eredu fosilistaren pilaketa eredua errepika dadin.

Elikadurarena ere ez da txantxa eta ezin gara besoak gurutzaturik geratu. Hornikuntza kate globalek betirako iraungo dutelakoan ezin gara bizi; ez daukagu egoeraren kontrola eta, gainera, zentzugabea da. Horren aldean, herrian dauden ekoizleak indartu behar ditugu, HemenGuk bertako produktuen marka babestuz, honek aberastasuna eta ofizioaren jakintza bertan geratzea ahalbidetzen digulako.

Merkataritza txikia, herrian errotua, urteetan zigortua izan den sektore estrategiko bat da. Egoera irauli beharrean gaude. Bizitza eta komunitatea sortzen du herrian gertuko zerbitzu profesionala eskainiz. Hornikuntza kate globalak erabili beharrean, gertutasuna lehenesten du, aberastasuna bertan geratzen delarik eta energia ikuspegitik jasangarria den eredua bultzatuz.

Mugikortasunak jasangarritasunean eta fosilizazioren menpekotasun ekuazioan sekulako eragina du. Energia fosilen zenbat eta menpekotasun handiagoa, orduan eta zaurgarriagoak gara. Beraz, beharrezkoa dugu zilbor hestea ahalik eta azkarren moztea. Mugikortasun ereduak kolektibora, oinezkora eta txirrindulara lerratu behar ditugu. Elektrifikazioari ere begiratu beharko diogu, konbustio indarra indar elektrikoarekin ordezkatuz pausoka-pausoka.

Azkenik, erronka honi herri bezala modu parte-hartzailean aurre egiteko beharra azpimarratu nahiko genuke, jada martxan dauden ekimenak balioan jarriz eta beraiek indartzeko premia azpimarratuz.

Sinatzaileok, trantsizio ekosoziala hemen aipatutako terminoetan garatzeko prestutasuna eta beharra ikusten ditugu, eta babesa emateko eta berau bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu.